



MANCOMUNIDAD SASIETA	SASIETA MANKOMUNITATEA
<p data-bbox="443 443 549 477" style="text-align: center;">Iragarkia</p> <p data-bbox="225 510 767 719">Sasieta Mankomunitateko Zuzendaritza Batzarrak 2020ko martxoaren 11n egindako ezohiko bilkuran, erabaki du, gehiengo soilez, besteak beste, Garbigune zerbitzuaren Zerga-Ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea.</p> <p data-bbox="225 797 767 898">Iragarkia argitaratu da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2020ko maiatzaren 25ean (96. zk.ian).</p> <p data-bbox="225 943 767 1256">Jendaurreko erakustaldia inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu gabe iraganenez, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikulua eta akordio berak xedatutakoari jarraiki, aldaketa behin betikoz onartutzat jotzen da, argitaratzen den biharamunetik aurrerako ondorioak izan ditzan. Testua aldaketekin argitaratzen da I. eranskinean.</p> <p data-bbox="225 1301 767 1503">Hau guztia, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikulua agindutakoa betetzeko argitaratzen da, guztiak jakinaren gainean egoteko, eta artikulua horretan aurreikusten den gainerako ondorioetarako.</p> <p data-bbox="225 1547 767 1861">Hala, Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Ordenantza hau onartzen duten erabakien aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekur tsoa aurkezu ahal izango diote Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiari. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.</p> <p data-bbox="225 1939 767 2009">Nolanahi ere den, eta 11/1989 Foru Arauaren 14.1 atalak xedatutakoa alde</p>	<p data-bbox="1018 443 1123 477" style="text-align: center;">Anuncio</p> <p data-bbox="794 510 1337 752">La Junta Rectora de la Mancomunidad Sasieta, en sesión extraordinaria celebrada el 11 de marzo de 2020, acordó, entre otros, por mayoría simple, la aprobación provisional de la modificación de las Ordenanza Fiscal del servicio de Garbigune de la Mancomunidad Sasieta.</p> <p data-bbox="794 763 1337 864">El anuncio ha sido publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el 25 de mayo de 2020 (n.º 96).</p> <p data-bbox="794 909 1337 1256">Transcurrido el plazo de exposición pública sin que se haya presentado alegación o reclamación alguna, se entiende que ha quedado definitivamente aprobada de conformidad con lo dispuesto por el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio y por el texto del acuerdo con efectos a partir del día siguiente a su publicación. El texto con las modificaciones se publica en el anexo I.</p> <p data-bbox="794 1301 1337 1503">Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.</p> <p data-bbox="794 1547 1337 1928">De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.1 de la citada Norma Foral, contra los acuerdos aprobatorios de la Ordenanza, los/as interesados/as podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la correspondiente Sala del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente hábil al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.</p> <p data-bbox="794 1973 1337 2009">Ello no obstante e independientemente de</p>

<p>batera utzita, interesdunek, hala nahi izanez gero, eta Administrazioarekiko Auzibidera jo aurretik, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Gipuzkoako Foru Epaitegi Ekonomiko Administratiboan Horretarako, hilabeteko epea izango da, testu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.</p> <p>Beasain, 2020ko abuztuak 12— Lehendakariak</p>	<p>lo establecido en el artículo 14.1 de la Norma Foral 11/1989, los/as interesados/as podrán interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía contencioso administrativa, reclamación ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Gipuzkoa en el plazo de un mes contado a partir del siguiente día hábil al de la publicación del texto en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de las expresadas publicaciones.</p> <p>Beasain, a 12 de agosto de 2020—La Presidenta</p>
<p style="text-align: center;">SASIETA MANKOMUNITATEKO GARBIGUNE ZERBITZU PUBLIKOIA EMATEAGATIKO ZERGA ORDENANTZA</p> <p>1. artikulua. Legezko oinarria</p> <p>Toki entitate honek, bere estatutuetan xedatutako eskumenen arabera, baita 6/2007 Foru Arauak, apirilaren 10ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituenak, 13. artikuluan eta hurrengoetan zein 11/1989 Foru Arauak, uztailaren 5ekoak, Gipuzkoako Toki Ogasunarenak, 43 eta 49. bitarteko artikuluetan xedatutako eskumenen arabera ere, «Sasieta Mankomunitateko Garbigune zerbitzu publikoia emateagatiko tasak» ezartzen ditu.</p> <p>2.artikulua. Xedea</p> <p>Kontuan hartuta Mankomunitateak interesa duela herritarren bizi kalitatea etengabe hobetzeko eta hondakinen gaikako bilketa, birziklatzea eta berrerabilera sustatzeko helburuarekin, Ordenantza honen xedea da Sasieta Mankomunitateko udalerrien lurralde esparruan Garbigune zerbitzu publikoia emateagatiko tasak arautzea.</p> <p>3.artikulua. Tasa ordaintzaileak</p>	<p style="text-align: center;">ORDENANZA FISCAL DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE GARBIGUNE DE LA MANCOMUNIDAD SASIETA</p> <p>Artículo 1. Fundamento Legal.</p> <p>Esta entidad local, en uso de las facultades contenidos en sus estatutos, en los artículos 13 y siguientes de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades de ámbito supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa y los artículos 43 a 49 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, de Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece las «Tasas por la prestación del servicio público de Garbigune de la Mancomunidad Sasieta».</p> <p>Artículo 2. Objeto.</p> <p>Teniendo interés esta Mancomunidad en la mejora constante de la calidad de vida de los/as ciudadanos/as y con el objetivo de fomentar la recogida selectiva, el reciclaje y la reutilización, la presente Ordenanza tiene como objeto la regulación de las tasas por prestación del servicio público de Garbigune en el ámbito territorial de los municipios integrantes de la Mancomunidad Sasieta.</p> <p>Artículo 3. Obligados al pago.</p>

<p>Tasa ordaindu beharko dute Garbigune zerbitzua eskatzen dutenek.</p> <p>4.artikulua. Tasa ordaintzeko betebeharra</p> <p>Zerbitzua ematen hasten denean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Zerbitzua ematen hasten dela ulertzen da eskaera inprimakia aurkeztu eta hondakina entregatzen den momentuan.</p> <p>Prezioa ordaindu behar duen ordaintzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla eta, zerbitzua edo jarduera ez bada ematen edo garatzen, dagokion zenbateko proportzionala itzuliko zaio ordaintzaileari.</p> <p>Tasa ordaintzen ez bada, ezingo da zerbitzu hori berriro eskatu.</p> <p>Oraindik tasa ordainagiriren bat ordaintzeke duten erabiltzaileei ez zaie bestelako zerbitzu eskaerarik onartuko.</p> <p>5. artikulua. Salbuespenak</p> <p>Tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:</p> <ol style="list-style-type: none">1.Mankomunitatearen barne dauden udaletxeetako zerbitzuek entregatutako hondakin onetsi guztiak.2.Gainerako erabiltzaileek entregatzen dituzten hondakin onetsi guztiak, honako hauek izan ezik:<ol style="list-style-type: none">a)Etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen diren harrizko eraikuntza eta eraispn hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, plaketak, zeramika zoladurak, eskaiola, igeltsua, sabaiko plakak eta moldurak, konketak, komunak, dutxaontziak, teilak eta abar, betiere amiantodun fibrozementuzko elementurik gabekoak.b)Harrizkoak ez diren bestelako eraikuntza	<p>Estarán obligados al pago quienes solicitan el servicio Garbigune.</p> <p>Artículo 4. Obligación de pago.</p> <p>La obligación de pagar la tasa nace desde que se inicie la prestación del servicio. Se entiende que la prestación del servicio se inicia en el momento de presentación de la solicitud y entrega del residuo.</p> <p>Cuando, por causas no imputables al obligado al pago del precio, el servicio o la actividad no se preste o desarrolle procederá la devolución del importe proporcional correspondiente.</p> <p>La falta de pago supondrá la imposibilidad de solicitar nuevos servicios.</p> <p>No se autorizará la solicitud de servicios a las personas usuarias que tengan algún recibo pendiente de abono.</p> <p>Artículo 5. Exenciones</p> <p>Quedan exentas del pago de tasas:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Todas las entregas de residuos admisibles que realicen los servicios municipales de los Ayuntamientos mancomunados.2. Todas las entregas de residuos admisibles que realicen el resto de usuarios/as a excepción de:<ol style="list-style-type: none">a)Residuos de Construcción y Demolición (RCD) de carácter pétreo procedentes de obra menor de construcción y reparación domiciliaria: ladrillos, hormigón, baldosas, plaquetas, pavimentos cerámicos, escayola, yeso, placas y molduras para techo, lavabos, sanitarios, platos de ducha, tejas, etc., exentos de elementos de fibrocemento con amianto.
--	---

<p>eta eraispen hondakin handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak: egur zatiak (parketa, tronadurak, markoak...), plastiko zatiak, beira zatiak, komuneko manparak polikarbonato izurtuzko xaflak, isolatzaile termiko eta akustikoak, ONDULINE, olanak, binilo lurzorua, asfaltozko geruzak eta abar.</p> <p>c) Bilgailu ez-industrialen pneumatikoak, dagoeneko erabiltzen ez direnak.</p> <p>d) Etxeko animalien (maskoten) gorpuak.</p> <p>3. Hurrizkoak eta hurrizkoak ez diren eraikuntza eta eraispen hondakin nahastu handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak, pertsonalki entregatuko dira, hondakinen kopuruak ez badu 100 kiloko muga gainditzen (25 kiloko 4 zaku) eta hondakinak behin eta berriz entregatzen ez badira (gehenez 500 kg hileko; hau da, 25 kiloko 20 zaku).</p> <p>6.artikulua. Kudeaketa eta ordaintzeko modua</p> <p>Zerbitzua eman aurretik ordainduko dira tasaren likidazioak.</p> <p>Partikularrek eskudirutan ordainduko dute tasa, Garbigunean bertan.</p> <p>Enpresak edo pertsona juridikoak badira, tasa banku helbideratze bidez ordaindu ahal izango da, edo bestela eskudirutan, Garbigunean bertan.</p> <p>7.artikulua. Arau hausteak eta zehapenak</p> <p>Ondoz ondoko bi kuota ordaintzen ez badira, zerbitzuan baja emango da, premiamenduzko bidetik sorrarazitako eta ordaindu gabeko</p>	<p>b) Otros RCDs de carácter no pétreo y voluminoso procedentes de obra menor de construcción y reparación domiciliaria: fragmentos de madera (parqué, tarima, marcos...), fragmentos de plástico, cristales, mamparas de baño, placas de policarbonato ondulado, aislantes térmicos y acústicos, onduline, lonas, suelos vinílicos, tela asfáltica, etc.</p> <p>c) Neumáticos fuera de uso de vehículos no industriales.</p> <p>d) Cadáveres de animales de compañía (mascotas).</p> <p>3. Todas las entregas de RCDs de carácter pétreo y de otros RCDs mezclados de carácter no pétreo y voluminoso, procedentes de obra menor de construcción y reparación domiciliaria que, a título personal, realicen los particulares, cuyo peso sea inferior a 100 kg. (equivalente a 4 sacos de 25 kg) y el depósito no sea reiterado (un máximo de 500 kg en un mes, equivalente a 20 sacos de 25 kg).</p> <p>Artículo 6. Gestión y forma de pago.</p> <p>Las liquidaciones de la tasa serán abonadas con carácter previo a la prestación del servicio.</p> <p>Los particulares procederán al abono en metálico en el Garbigune.</p> <p>En caso de empresas o personas jurídicas, las tasas podrán ser abonadas mediante domiciliación bancaria o en metálico en el Garbigune.</p> <p>Artículo 7. Infracciones y sanciones.</p>
---	--

zenbatekoak kobratzea eragotzi gabe.

Gainera, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori osatu zein garatzen duten xedapenetan araututako arau hauste eta zehapen erregimena aplikatuko da.

8. artikulua. Tarifak

Beasaingo, Ordiziako eta Urretxuko Garbiguneetan hondakinak utzi, behin-behinean gorde eta horien amaierako kudeaketa egiteko zerbitzua erabiltzeagatik tarifak I. ERANSKINEAN daude zehaztuta.

Azken xedapena

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean Ordenantza hau, eta hori berariaz aldatu edo indargabetu arte aplikatuko da.

I.ERANSKINA.- TARIFAK

— Etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen diren harrizko eraikuntza eta eraispen hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, plaketak, zeramika zoladurak, eskaiola, igeltsua, sabaiko plakak eta moldurak, konketak, komunak, dutxaontziak, teilak eta abar, betiere amiantodun fibrozementuzko elementurik gabekoak: 72,00 euro/Tn.

— Harrizkoak ez diren bestelako eraikuntza eta eraispen hondakin handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak: egur zatiak (parketa, tronadurak, markoak...), plastiko zatiak, beira zatiak, komuneko manparak, polikarbonato izurtuzko xaflak, isolatzaile termiko eta akustikoak, onduline, olanak, binilo lurzoruak, asfaltozko geruzak eta abar: 154,00 euro/Tn.

La falta de pago de dos cuotas consecutivas es causa de baja en el servicio, sin perjuicio del cobro de las cantidades devengadas y no satisfechas por vía de apremio.

Además, se aplicará el régimen de infracciones y sanciones regulado en la Norma Foral General Tributaria y en las disposiciones que la complementen y desarrollen

Artículo 8. Tarifas.

Las tarifas por la utilización del servicio de depósito, almacenamiento transitorio y gestión final de residuos en los Garbigunes de Beasain, Ordizia y Urretxu se incluyen en el ANEXO I.

Disposición Final.

La presente Ordenanza entrará en vigor el día de su publicación el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y se aplicará hasta que se acuerde su modificación o derogación expresa.

ANEXO I.- TARIFAS

— Residuos de Construcción y Demolición (RCD) de carácter pétreo procedentes de obra menor de construcción y reparación domiciliaria: ladrillos, hormigón, baldosas, plaquetas, pavimentos cerámicos, escayola, yeso, placas y molduras para techo, lavabos, sanitarios, platos de ducha, tejas, etc., exentos de elementos de fibrocemento con amianto: 72,00 euros/Ton.

— Otros RCDs mezclados de carácter no pétreo y voluminoso procedentes de obra menor de construcción y reparación domiciliaria: fragmentos de madera (parqué, tarima, marcos...), fragmentos de plástico, cristales, manparas de baño, placas de

SASIETA MANKOMUNITATEA

Iturralde-txikikiko industrialdea, 3-2.sol.
Salbatore auzoa
20.200 Beasain (Gipuzkoa)



Tel: 943 16 15 55
Fax: 943 16 06 04
info@sasieta.eus
www.sasieta.eus

<p>— Ibilgailu ez-industrialen pneumatikoak, dagoeneko erabiltzen ez direnak, hagnetatik edo metalezko ataletatik bereizita: 1,50 euro/pneumatiko bakoitzeko. Erabiltzaileak erosketa faktura aurkezten badu, doan entregatu ahal izango du pneumatikoa. Urtean 5 pneumatiko entregatu ahal izango dira gehienez.</p> <p>— Etxeko animalien (maskoten) gorpuak (Ordiziako eta Urretxuko Garbiguneetan soilik): 37,00 euro/animalia bakoitzeko</p>	<p>policarbonato ondulado, aislantes térmicos y acústicos, onduline, lonas, suelos vinílicos, tela asfáltica, etc.: 154,00 euros/Ton.</p> <p>— Neumáticos fuera de uso de vehículos no industriales, separados de las llantas o partes metálicas: 1,50 euros/unidad de neumático. Si la persona usuaria presenta la factura de compra el depósito será gratuito con un máximo de 5 neumáticos anuales.</p> <p>— Cadáveres de animales de compañía (únicamente en los Garbigunes de Ordizia y Urretxu): 37,00 euros/ud. de animal.</p>
---	---